



CHEMINS DE CRÉATION

PYRÉNÉES DE CIRQUE

## *Sorkuntzaren bideak* **HAUTAGAITZETARAKO** **3. DEIALDIA**

*Pirinioetan zirku-arteen adierazpen garaikideen inguruko  
sorkuntza-egonaldi ibiltariak*  
**2012-2014**

1

*Deialdia 2013ko maiatzaren 15<sup>a</sup> arte*

**Zirkuko Pirinioak** Europako proiektua da, zirkuaren arloko sorkuntza eta horren hedapena Pirinioetako mugaz haraindiko eskualde guztietan sustatzeko helburua duena. Horretarako, artistak eta obrak mugiarazteko ekintzak bideratzen ditu, programatzaileekin eta publikoarekin/publikoekin harremanetan jartzea ahalik eta gehien bultzatuz.

**Sorkuntzaren bideak**, Zirkuko Pirinioak proiektuaren tresnetako bat, mugaz haraindiko eremuan zirku garaikidearen sorkuntza garatzea bultzatzeko bildu diren sorkuntza-tokien sare bat da, Pirinioez haraindikoa. Horretarako, sare horretako kideek sorkuntzarako funts bateratua sortu dute.

**Sorkuntzaren bideak** ekimenaren bitartez, **Zirkuko Pirinioak** proiektuko kideek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- Zirku-ikuskizunak hedatzeko eta sustatzeko aukerak gehitzea, sorkuntza-fase guztietan, proiektuaren sorretatik hasita proiektua hedatzeko faserara arte.
- Konpainiei beren sorkuntza-lanak beste lurralde batzuetan lantzeko aukera ematea, hainbat hedapen-sareekin eta askotariko publikoekin lehenbailehen harremana izan dezaten.
- Zirku-konpainien jardun-eremua zabaltzea, beren eragin-eremua mugaz haraindikoa izan dadin.
- Hedapenera bideratutako zirku garaikideko ikuskizunak sortzeko laguntza ematea, hainbat konfiguraziotan aurkezteko aukera izateko, betiere beste herrialde batzuetara esportatzeko asmoz.

**Proiektuko 3. eta azken deialdi honen esparruan, Zirkuko Pirinioak proiektuak hiru motatako laguntzak emango ditu: artista edo kolektibo sortuberrien proiektuetarako laguntzak (A modalitatea), dagoeneko finkatuta dauden artista edo kolektiboen proiektuetarako laguntzak (B modalitatea) eta « ikerketa/sorkuntza » proiektu ibiltarietarako laguntzak (C modalitatea).**

Laguntza hainbat modutan gauzatuko da, hala nola sorkuntzarako tokiak lagata, proiektuen premietara egokitutako laguntza emanda (artistikoa, teknikoa eta/edo kudeaketakoa) eta sortzeko diru-laguntzak emanda.

**OHARRA:** hautatutako talde artistikoei indarrean dagoen lan-legedia betetzeko konpromisoa hartuko dute, bereziki soldatako artistentzat entsegu-ordainsariak aurreikusita.



PYRÉNÉES DE CIRQUE



UE-FEDER

- **A modalitatea: artista edo kolektibo sortuberrien zirku-ikuskizunak sortzeko laguntza.**

### **Hartzaileak:**

Modalitate honek zirku garaikideko ikuskizuna sortzeko proiektua duen **artista edo kolektibo profesional sortuberri** oro du jomugan, betiere honako baldintza hauen arabera:

- Sortuberrizat emango ditugu oraindik ere hedatu ez den ikuskizun luzerik sortu ez duten artistak edo kolektiboak.
- Honako eskualde hauek barnean hartzen dituen zona geografiko honetakoa izatea: Katalunia, Midi-Pyrénées eskualdea, Aragoi, Euskadi, Nafarroa eta, oro har, Frantzia-Espainia<sup>1</sup> mugaz haraindiko eremua (hau da, lurralde horretan bizitzea edo konpainiak lurralde horretan izatea egoitza).
- Gutxienez 30 minutuko iraupena duen proiektu artistiko argitaragabea izatea (proiektua kalean aurkeztekoa bada), edo gutxienez 50 minutuko iraupena izatea (proiektua aretoetan aurkeztekoa bada), betiere sorkuntza- eta ekoizpen-egutegi zehatza izanik.
- Karrika ala espazio publikako pentsatuak diren proiektuei kasu berezi bat egingen diegu

### **Zirkuko Pirinioak hautatutako proiektuei emango dien laguntza:**

- Sorkuntza-egonaldietarako tokiak lagatzea.
- Sorkuntzarako diru-laguntza, ikuskizuna ekoizteari lotutako gastuak estaltzeko. Horren zenbatekoa 2.000 €-tik 5.000 €-ra bitartekoa izango da, zerga guztiak barne.
- Hautatutako taldeei beren sorkuntza-prozesuan laguntzea: administrazio-laguntza, komunikazio-laguntza, etab. (proiektu bakoitzari laguntzaile bat esleituko zaio)

### **Hautatutako artistak edo kolektiboak bere gain hartuko dituen konpromisoak:**

- Proiektuaren aurrerapen-mailaren arabera, konpainiak lan-urrats bakoitzaren txostena aurkeztuko egonaldi bat egiten duen bakoitzean.
- Konpainiak tokiko/tokietako dinamikan parte hartzeko konpromisoa hartuko du, edo egonaldian egongo da: hainbat publikoren aurrean jardutea (kultura-bitartekaritza), aurkezpenak, etab.
- Konpainiak justifikatu egin beharko du laguntzaren zenbatekoa, **fakturaren** bitartez. Era berean, laguntza horrekin egindako **gastuen frogagiriaren kopia** aurkeztuko ditu (entsegu-ordainsariak, zuzendaritza artistikoa eta sorkuntza-lanerako beste gastu batzuk).
- Gutxienez, **lurraldeko bi tokitan** egin beharko ditu egonaldiak.
- Antolatzaileak nahi izanez gero, konpainiak Zirkuko Pirinioak proiektuko ekitaldi batean edo gehiagotan hartuko du parte: « Animahu » (Aragoi), « Jacetania Circus » (Aragoi), « Caravanes de Cirque » (Midi-Pyrénées), « Mas difícil todavía » jaialdia (Nafarroa), « Zirkualde » (Bilbo), « Kaldearte » (Gasteiz), « Les Fêtes européennes » (Ax-les-Thermes), Harri Xuriren urteko programazioa (Euskal herria – Akitania) ... **Parte-hartze hori hitzarmena sinatzean adostutako tarifaren arabera ordainduko da.**

<sup>1</sup> Espainia: Gipuzkoa, Nafarroa, Huesca, Lleida, Girona, Bartzelona, Tarragona, Zaragoza, Errioxa, Bizkaia eta Araba / Frantzia : Pirinio Atlantikoak, Pirinio Garaiak, Garona Garaia, Ariège, Ekialdeko Pirinioak, Aude, Tarn, Tarn eta Garona, Gers eta Landak.

- **B modalitatea: dagoeneko finkatuta dauden artista edo kolektiboen zirku-ikuskizunak sortzeko laguntza.**

### **Hartzaileak:**

Modalitate honek zirku garaikideko ikuskizuna sortzeko proiektua duen eta dagoeneko **finkatuta dagoen artista edo kolektibo profesional** oro du jomugan, betiere honako baldintza hauen arabera:

- Finkatutzat emango ditugu gutxienez ikuskizun bat sortu eta hedapen-zirkuituetan hedatu duten artistak edo kolektiboak.
- Honako eskualde hauek barnean hartzen dituen zona geografiko honetakoa izatea: Katalunia, Midi-Pyrénées eskualdea, Aragoi, Euskadi, Nafarroa eta, oro har, Frantzia-Espainia<sup>2</sup> mugaz haraindiko eremua (hau da, lurralde horretan bizitzea edo konpainiak lurralde horretan izatea egoitza).
- Gutxienez 30 minutuko iraupena duen proiektu artistiko argitaragabea izatea (proiektua kalean aurkeztekoa bada), edo gutxienez 50 minutuko iraupena izatea (proiektua aretoetan aurkeztekoa bada), betiere sorkuntza- eta ekoizpen-egutegi zehatza izanik.
- Karrika ala espazio publikirako pentsatuak diren proiektuei kasu berezi bat eginen diegu

### **Zirkuko Pirinioak hautatutako proiektuei emango dien laguntza:**

- Sorkuntza-egonaldietarako tokiak lagatzea.
- Sorkuntzarako diru-laguntza, ikuskizuna ekoizteari lotutako gastuak estaltzeko. Horren zenbatekoa 5.000 €-tik 10.000 €-ra bitartekoa izango da, zerga guztiak barne.
- Hautatutako taldeei beren sorkuntza-prozesuan laguntzea: administrazio-laguntza, komunikazio-laguntza, etab. (proiektu bakoitzari laguntzaile bat esleituko zaio)

### **Hautatutako artistak edo kolektiboak bere gain hartuko dituen konpromisoak:**

- Proiektuaren aurrerapen-mailaren arabera, konpainiak lan-urrats bakoitzaren txostena aurkeztuko egonaldi bat egiten duen bakoitzean.
- Konpainiak tokiko/tokietako dinamikan parte hartzeko konpromisoa hartuko du, edo egonaldian egongo da: hainbat publikoren aurrean jardutea (kultura-bitartekaritza), aurkezpenak, etab.
- Proiektu-deialdi honetan hautatutako taldeetako bat aukeratuko da, proiektuaren arabera, Bizkaian artista profesionalentzako **workshop** bat egiteko. Lan hori **2014ko uztail hastapenean** programatuko da Bilboko « Kalealdia » jaialdian.
- Konpainiak justifikatu egin beharko du jasotako laguntzaren zenbatekoa, **fakturaren** bitartez. Era berean, laguntza horrekin egindako **gastuen frogagirien kopiak** aurkeztuko ditu (entsegu-ordainsariak, zuzendaritza artistikoa eta sorkuntza-lanerako beste gastu batzuk).
- Gutxienez, **lurraldeko bi tokitan** egin beharko ditu egonaldiak.
- Antolatzaileak nahi izanez gero, konpainiak Zirkuko Pirinioak proiektuko ekitaldi batean edo gehiagotan hartuko du parte: « Animahu » (Aragoi), « Jacetania Circus » (Aragoi), « Caravanes de Cirques » (Midi-Pyrénées), « Mas difícil todavía » jaialdia (Nafarroa), « Zirkualde » (Bilbo), « Kaldearte » (Gasteiz), « Les Fêtes européennes » (Ax-les-Thermes), Harri Xuriren urteko programazioa (Euskal herria – Akitania) ... **Parte-hartze hori hitzarmena sinatzean adostutako tarifaren arabera ordainduko da.**

<sup>2</sup> Espainia: Gipuzkoa, Nafarroa, Huesca, Lleida, Girona, Bartzelona, Tarragona, Zaragoza, Errioxa, Bizkaia eta Araba / Frantzia : Pirinio Atlantikoak, Pirinio Garaiak, Garona Garaia, Ariège, Ekialdeko Pirinioak, Aude, Tarn, Tarn eta Garona, Gers eta Landak.

- **C modalitatea : ibiltaritza laguntza : « ikerketa – sorkuntza » Euskal Herrian kokatutako artista edo kolektiboentzat batik bat**

### **Hartzaileak:**

Modalitate hau zirko garaikide ikerketa proiektu bat daukan eta **profesional edo profesionalizazio bidean den edozein artista edo kolektibo** oro du jomugan, betiere honako baldintza hauen arabera :

- Kanpo-begirada batekin edo zirkoko teknikaren espezialista batekin garatu nahi den proiektu artistiko (numero, sorkuntza proiektu) bat izan. Kolektiboak « kanpo-begirada » izan daitekeen pertsona bat proposatzen ahal du, baita pertsona hori ezagutu ere, edo ez. Bukarako presentaketa ez da derrigorrezkoa.
- Honako eskualde hauek barnean hartzen dituen zona geografiko honetakoa izatea: Katalunia, Midi-Pyrénées eskualdea, Aragoi, Euskadi, Nafarroa eta, oro har, Frantzia-Espainia<sup>3</sup> mugaz haraindiko eremua (hau da, lurralde horretan bizitzea edo konpainiak lurralde horretan izatea egoitza). Lehenetsuna Euskal Herriko artista edo kolektiboeri emana izanen zaie.

### **Zirkuko Pirinioak hautatutako proiektuei emango dien laguntza:**

- Sorkuntza-egonaldietarako tokiak lagatzea aste bat edo birentzat
- Ibiltaritzarako diru-laguntza, erdia kanpoaldeko artistaren lan sariaren gastuak estaltzeko. Horren zenbatekoa 1.000 €-tik 2.000 €-ra bitartekoa izango da, zerga guztiak barne.
- Hautatutako taldeei beren ikerketa-prozesuan laguntzea: administrazio-laguntza, etab. (Koblakari eta Flik Flak elkarteak proiektu bakoitzako erreferenteak izango dira)

### **Hautatutako artistak edo kolektiboak bere gain hartuko dituen konpromisoak:**

- Artista edo kolektiboak derrigorrez, **bere lurraldetik kanpo** den egonaldi gune batean pasako den ikerketa lan bat egin beharko du.
- Jasotako laguntzaren zenbatekoa, **fakturaren** bitartez justifikatu egin beharko du. Era berean, laguntza horrekin egindako **gastuen frogagiriaren kopiak** aurkeztuko ditu (kanpoko artistaren ordainsaria, entsegu-ordainsariak, etab.).

<sup>3</sup> Espainia: Gipuzkoa, Nafarroa, Huesca, Lleida, Girona, Bartzelona, Tarragona, Zaragoza, Errioxa, Bizkaia eta Araba / Frantzia : Pirinio Atlantikoak, Pirinio Garaiak, Garona Garaia, Ariège, Ekialdeko Pirinioak, Aude, Tarn, Tarn eta Garona, Gers eta Landak.

### Ekimenean parte hartuko duten Zirkuko Pirinioak proiektuko sorkuntzen aretoak :

- **Akitania:** Harri Xuri Karrikako Arteen Fabrika (Luhuso - 64)  
Lacaze aux sottises elkarte (Orion - 64)
- **Midi-Pyrénées eskualdea:** La Grainerie, Balma (Tolosa - 31).  
Ax-Animation, Ax-les-Thermes (Ariège - 09)  
La Fabrique, Université Toulouse-Le Mirail (Tolosa - 31)
- **Bizkaia** Koblakari (Bilbo) / bourses de mobilité eta workshop
- **Araba** Flik-Flak (Gasteiz) / bourses de mobilité

### Zirkuko Pirinioak proiektuari ekimenerako elkartutako sorkuntzen aretoa :

- **Katalunia:** La Central del Circ (Bartzelona)  
(Process()s euroeskualde-proiektuari lotuta)

**Hautaketa-batzordea** Zirkuko Pirinioak proiektuko bi kideren ordezkariak eta Process()s proiektuaren ordezkari batek osatuko dute. Proiektuak ebaluatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Proiektuek aukeratutako modalitatearekiko duten egokitze-maila.
- Proiektuen kalitate artistikoa eta alderdi berritzailea.
- Zirku-trebetasunen garrantzia.
- Sorkuntzarako emandako denbora.
- Sorkuntza-egutegia. Lehenetsuna emango zaie 2013ko ekainean amaituko diren sorkuntza-lanei.
- Zuzendaritza artistikoa (kanpo-ikuspegia, errealizadorea)
- Zirkuko Pirinioak proiektuaren baliabideak erabiltzeko borondatea (sorkuntza-tokien sarea, lurralderako proiektzioa, etab.).
- Proiektua garatzeko aukera (sorkuntza-lanaren kudeaketa eta hedapena).
- Proiektua mugaz haraindiko lurraldeetako publikoetara egokitzeko aukera (bereziki, ahozko testu gutxi edo batere ez edukitzea).
- Fitxa teknikoaren bideragarritasuna, birei dagokienez.

### Egutegia

- Proiektuak jasotzeko epea: **2013ko maiatzaren 15an amaituko da.**
- Ebazpena: **2013ko ekain erdia.**  
Hautagai diren talde artistikoei informazio-bileretarako deitu ahal izango zaie, azken erabakirako kontuan hartzeko elementu gehiago biltzearren.
- Hautatutako konpainiek edo artistek hitzarmen bat sinatuko dute « Zirkuko Pirinioak » proiektuko kide batekin. Hitzarmen horrek proiekturako laguntza eta alde bakoitzaren konpromisoak bilduko ditu.
- Sorkuntza-egonaldiak **2013ko irailaren eta 2014ko urriaren artean** egin behar dira.  
Premia tekniko eta logistikoak, egonaldiak egingo diren tokietako harrera-egutegiak eta hautaketa-batzordeak sorkuntza-lanei egingo dien segimendua hautatutako taldeekin egingo diren alde biko bileretan ebaluatuko dira.
- Bilbon antolatuko den workshop-a **2014ko ekain bukaeran/uztail hastapenean** iragango da, eta **uztail hastapenean** Bilbaoko « Kalealdia » festibalaren kari amana izango den ikusgarri batekin bukatuko da.

## Artistek edo konpainiek eskaerak egiteko jarraibideak:

1. **[harrixuri@yahoo.fr](mailto:harrixuri@yahoo.fr)** helbidera **mezu elektronikoz** honako dokumentu hauek bidaltzea:
  - a. Hautagaitza-formularioa, Pirinioetako eremuko hizkuntza ofizialetako batean betea (euskara, gaztelania, katalana, frantsesa).  
Formularioa « Pyrénées de cirque » webgunean (<http://pyreneesdecirque.eu/>) lor daiteke, baita Zirkuko Pirinioak proiektuko parte-hartzaileen webguneetan ere.
  - b. Halaber, hautaketarako lagungarria izan daitekeen edozein elementu osagarri bidali behar dute (konpainiaren lanari eta aurkeztutako proiektuari buruzko informazioa gehitzeko irudiak edo idazkiak)

**Oharra: Hautagaien mezu elektronikoez ez dute 3 MB-ko tamaina gaindituko.**

2. Telefonoz deitu beharko dute, hautagaitza-dokumentazioa ondo jaso dela ziurtatzeko.

### Proiektuetarako deialdirako kontaktua:

Harri Xuri – SIVOM Artzamendi  
Aurélie Pousset eta Filgi Claverie  
Kultura-aretoa  
64250 Luhuso

Tel.: +33 (0) 5 59 55 58 43 / [harrixuri@yahoo.fr](mailto:harrixuri@yahoo.fr)  
<http://harrixuri.blogspot.fr/>

### « Zirkuko Pirinioak » proiektuko kideak

**La Grainerie** (Balma-Midi-Pyrénées)  
**Animahu** (Huesca-Aragoi) / **Ax Animation** (Ax-les-Thermes-Ariège)  
**CIAM-UTM** (Tolosa-Midi-Pyrénées) / **FEFPAC** (Orikain – Nafarroa)  
**Flik Flak** (Gasteiz-Euskadi) / **Harri Xuri** (Luhuso – Akitania)  
**Koblakari** (Bilbo-Euskadi) / **Le Lido** (Tolosae-Midi-Pyrénées)  
**Vianako Udala** (Nafarroa)

[www.pyreneesdecirque.eu](http://www.pyreneesdecirque.eu)